



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2011ko otsailaren 24a

14. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa. Akats zuzenketa (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2010eko uztailaren 2ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2011ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

"...osasan arloko langileen betebeharrak, kontzientzia eragozpena kontuan hartuz halakorik gertatuz gero, eta..."

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: kontzientzia eragozpenerako eskubidearen aitortzea eta bermea.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Testu guztian, "bizitzaren azken prozesuan" esapidearen ordez, "heriotzaren prozesuan" jartzea proposatzen da.

Honako hauek aldatu beharko dira: legearen izenburua, zioen azalpeneko 1., 2., 9., 15., 19. eta 22. lerroak, 1. artikulua, 2. artikuluko a, b eta c letrak, 3. artikulua, 4. artikuluko a, c, d eta e letrak, 5. artikuluko j, k eta q letrak, II. titulua, 6.1, 6.4, 7.1, 13.1, 13.2 eta 15.1 artikulua, III. titulua, 18.1, 19.2,

23.1, 24, 25, 26.1, 27.1 eta 28.2 artikulua, eta xedapen iragankor bakarra.

Zioak: Ordeztu nahi den esapidea jarri nahi dena baino askoz zehaztugabeagoa da. Zehaztugabetasuna dago, bereziki, bizitzaren amaiera hasiera-unetzat hartu beharrekoari dagokionez. 5. artikuluko definizioarekin zehaztugabetasuna areagotu egiten da.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Testu osoan, soziosanitario beharrean "sanitario" jartzea. Honako artikulua aldatu beharko dira: 1, 2. c), 3, 4. c) eta e), 22.1 eta 22.2, 25.1 eta 25.2, eta 27.1.

Zioak: Ez da existitzen ez erakunde soziosanitariorik, ezta profesional soziosanitariorik ere.

4. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko zuzenketa.

1 artikuluan, "gizarte- eta osasun-erakundeek" ordeztu eta horren ordez "erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek" jartzea.

Zioak: Prozesu terminalean dauden gaixoei laguntza ematen dieten erakundeak sanitarioak dira, eta, kasu batzuetan, arlo soziosanitariokoak.

5. ZUZENKETA**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

1. artikulua aldatu eta haren amaieran hurrengo testua jartzeko zuzenketa:

“behar diren baldintzak ziurtatuz profesionalen irizpide medikoak aplikatu ditzaten independentziaz, zorrotasunez, askatasun profesionalaz eta kalitatezko arretaz.”

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. b) artikulua honako testu honekin ordeztuko zuzenketa:

"b) Pertsonaren autonomia eta haren borondatearekiko errespetua ziurtatzea bizitzaren amaierako prozesuan, Aurretiazko Borondateen Agirian aldez aurretik adierazitakoarekiko barne, betiere gaixoaren autonomia arautzen duen azaroaren 14ko 41/2002 Legean ezarritako mugen barruan.

Zioak: Azaroaren 14ko 41/2002 Legeko 11.3 artikulua –lege horretan gaixoaren autonomia arautzen da–, honakoa ezartzen du: alde aurretik emaniko jarraibideak ez dira aplikatuko ez badatoz bat ordenamendu juridikoarekin, *lex artis* esaten zaionarekin edo bere borondatea adieraztean interesdunak aurreikusitako kasuarekin.

Lex artis bereziki aipatzea, gainera, bat dator SECPALen (Zainketa Aringarrien Espainiako Elkarte) eta OMCren (Medikuen Elkargoen Elkarte) gomendioekin.

7. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

2. c) artikulua aldatzeko zuzenketa.

2. c) artikuluan, “gizarte- eta osasun-erakundeek” ordeztu eta horren ordeztu “erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek” jartzea.

Zioak: Prozesu terminalean dauden gaixoei laguntza ematen dieten pertsonak arlo sanitario-koak dira, eta, kasu batzuetan, arlo soziosanitario-koak.

8. ZUZENKETA**CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS
DE NAVARRA
FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK
AURKEZTUA**

2.c) artikulua aldatzeko zuzenketa. “eta prozesu horri dagokionez gizarte- eta osasun-erakundeek eman beharreko bermeak” dioen tokian, honakoa esan du:

“eta prozesu horri dagokionez gizarte- eta osasun-erakundeek gaixoei zein profesionali eman beharreko bermeak.”

9. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko zuzenketa.

3 artikuluan, “gizarte nahiz osasun arloko laguntzan” ordeztu eta horren ordeztu “laguntza sanitarioan eta soziosanitarioan” jartzea.

Zioak: Prozesu terminalean dauden gaixoei laguntza ematen dieten erakundeak arlo sanitario-koak dira, eta, kasu batzuetan, arlo soziosanitario-koak.

10. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. c) artikulua aldatzeko zuzenketa.

4. c) artikuluan, “gizarte- eta osasun-erakundeek” ordeztu eta horren ordeztu “erakunde sanitarioek eta soziosanitarioek” jartzea.

Zioak: Prozesu terminalean dauden gaixoei ematen zaien laguntza bi era horietakoa da: sanitarioa eta soziosanitarioa.

11. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

4. artikulua aldatzeko zuzenketa.

4. e) artikuluan, “gizarte nahiz osasun arloko zerbitzuak” ordeztu eta horren ordeztu “zerbitzu sanitarioak eta soziosanitarioak”

Zioak: Prozesu terminalean dauden gaixoei ematen zaien laguntza bi era horietako da: sanitarioa eta soziosanitarioa.

12. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

4. artikuluari beste idatz-zati bat gehitzeko zuzenketa.

f) "Behar diren baldintzak ziurtatuko dira profesionalek irizpide medikoak aplika ditzaten independentziaz, zorrotzasun zientifikoaz, askatasun profesionalaz eta kalitatezko arretaz"

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko a) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

"a) Bizi kalitatea da bizi-baldintza objektiboetako norbanakoaren gogobetetasuna, objektiboki baloratua, norberaren balioak eta sinesmenak oinarri".

Zioak: "Norbanakoaren gogobetetasuna" subjektiboa da, eta zehaztugabea beraz, bizi-kalitatearen balorazioa egiteko erabiltzeko; era horretan, zainketa aringarriak eta ahalegin terapeutikoaren mugak gaixoaren esku leudeke, eta haren ardura, betiere, bere baimena ematea da bakarrik.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko b) letra aldatzeko zuzenketa. Testua honela geldituko da:

...informazio egokia jaso eta ulertu ondotik...

Zioak: Ziurtatzea baimena eman dela behin informazioa ulertuta.

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Hain zuzen ere, "edo egoera sendaezin eta itzulezin"

kendu eta horren ordean "egoera terminal" jartzea proposatzen da.

Zioak: Hobeki lotzen zaio legearen xedeari. Gaixotasun sendaezin eta babesgarri asko gera litezke definizio horren abaroz; legeak xede ditu, ordea, pertsonak heriotzaren prozesuan dituen eskubideak.

16. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. d) artikuluan, proposatzen dugu kentzea "maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legearen 9. artikuluan ezartzen denez"; eta, horren ordean, hau jartzea: "azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 54. artikuluan ezartzen denez."

Zioak: Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrari buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak indargabetu egin zuen aurreko legea, hau da, maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea.

17. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko c) letra aldatzeko zuzenketa. Hain zuzen ere, jarri beharrean "eta soilik balio duela hobetzeko arrazoizko aukerarik ez duen egoera biologikoa denboran luzatzeko", beste hau jartzea: "eta soilik balio duela hobetzeko arrazoizko aukerarik ez duen egoera klinikoa denboran luzatzeko".

Zioak: Luzatzen dena da egoera betiere biologiko baten egoera kliniko jakin bat.

18. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

5. artikuluko g) letra aldatzeko zuzenketa. Hain zuzen ere, testutik hau kentzea proposatzen dugu: "hidratatze eta elikatze artifizialak barne".

Zioak: Ez dago nahiko adostasun sozial, etiko eta juridiko hidratatze eta elikatze artifizialak biziari eusteko neurrien artean sartzeko.

19. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko h) letra kentzeko zuzenketa.

Zioak: Aurreko zuzenketaren zioekin bat.

20. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko k) letraren ordeztu, "Bizitzaren amaieran dauden pertsonak", honako testu hau jartzea proposatzen da:

"gaixotasun edo egoera sendaezina eta itzulezina duten pertsonak, edota egoera terminalean edo hiltzorian daudenak".

Zioak: Definizio hobea da, gure ustez.

21. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko k) letra aldatzeko zuzenketa; duen testuaren ordeztu, beste hau jartzea proposatzen da:

k) Heriotza prozesuan dauden pertsonak: egoera terminalean edo hiltzorian dauden pertsonak".

Zioak: Gaixotasun edo egoera sendaezin edo itzulezin batek ez dakar bizitzaren amaiera-prozesu bat eutanasia eragozten ez duen lege proposamen hau inspiratu behar duenaren zentzuzkoa.

22. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikulua aldatzeko zuzenketa.

5. artikuluko o) letraren ordeztu, "Egoera terminala", honako testu hau jartzea proposatzen da:

"Gaixotasun aurreratu, sendaezin eta itzulezin bat edukitzea, berariazko tratamenduari erantzuteko arrazoizko aukerarik gabe, bizi-pronostiko mugatuarekin eta sintoma bortitz eta aldakorrek, eta gaixotasun horrek eragin emozional handia izatea gaixoengan eta senideengan; eta, azkene-

an, eragin horren ondorioz, osasun arloko profesionalen berariazko esku-hartzea intentsitate handikoa izan behar izatea".

Zioak: Iruditzen zaigu hobeki lotzen zaiola Zainketa Aringarrien Espainiako Elkarteak nahiz Zainketa Aringarrien Europako Elkarteak aintzat hartutako definizioari.

23. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

5. artikuluko o) letra aldatzeko zuzenketa. Hain zuzen ere, "itzulezin " jarri beharrean, "progresiboa" jartzea. Testua honela geldituko da:

"o) Egoera terminala: gaixotasun aurreratu, sendaezin eta progresibo bat edukitzea..."

Zioak: Egoera terminala ez da gertatzen gaixotasuna aurreratuta dagoelako, sendaezina delako edo itzulezina delako, baizik eta gaixotasuna, aurreratuta egoteaz gain eta sendaezina izateaz gain, progresiboa delako, ez dagoelako tratamendu-aukerarik eta bizitza-pronostikoa mugatua delako. SECPALek emaniko definizioari egokitzen zaio.

24. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

6. artikulua aldatzeko zuzenketa.

6. artikulua, "Informazio klinikorako eskubidea", honela geldituko da:

"Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 42. eta 43. artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio."

Zioak: Eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

25. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

7. artikulua aldatzeko zuzenketa.

7. artikulua, "Erabakiak hartzeko eskubidea eta informazioan oinarrituriko baimena", honela geldituko da:

“Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 49. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.”

Zioak: Eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

7.2 artikulua amaierako zatia aldatzeko zuzenketa. “Baimena ahozkoa...” hitzekin hasi eta “ezartzen den kasuetan” hitzekin amaitzen dena da zati hori. Honako testua izanen du aurrerantzean:

“Baimena idatzizkoa izanen da nolahi ere, eta historia klinikoan jasoko da, azaroaren 14ko 41/2002 Legeko 8.2 artikuluan ezarritakoa ezertan kendu gabe.”

Zioak: Horixe ezartzen du aipatutako 8.2 artikulua gaixoaren osasunean eragina izan dezaketen arrisku edo arazo agerikoei buruz ari denean. Osasunerako zein arrisku dira handiagoak artikulua honetan aipatutako neurriak baino?

27. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko zuzenketa.

8. artikulua, “Esku-hartze bat errefusatzeko eta erretiratzeko eskubidea”, honela geldituko da:

“Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 26. eta 53. artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio.”

Zioak: Eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

28. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8.2 artikulua amaieran testua gehitzeko zuzenketa. Hauxe gehitzea nahi dugu:

“Sinatu ahal ez badu, haren ordezkari beste pertsona batek sinatuko du, zeina lekukoa izanen baita aurrez eskatuta, eta lekuko haren identifikazioa

ziora jasota geratuko da, bai eta baimen informatua atzera botatzen duen pertsonak ezin sinatzeko arrazoa ere. Hori guztia idatziz jaso beharko da historia klinikoan”

Zuzenketa aurkezteko zioak honakoak dira: Testua osatzen du.

29. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua 3. puntu berria gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“3. Nolanahi ere, osasun agintariak, osasun administrazioak eta profesional medikoek uneoro zainduko dute gaixo guztiek, beren inguruabarrak gorabehera, beren duintasunaren arabera gutxieneko zainketak jaso ditzaten, lex artis delakoari jarraituz.

Zioak: Balizko gatazka etiko eta profesionalak saihesteko, irizpide orokor gisa zehaztu beharko litzateke oinarritzko zainketak ematearena (oinarritzko zainketa arruntak eta emandakoak).

30. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko zuzenketa.

9.1 artikuluan, proposatzen dugu kentzea “maiztasunaren 6ko 11/2002 Foru Legea”, eta, horren ordezkari, hau jarztekoa: “azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea.”

Zioak: Eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

31. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko zuzenketa. “ordezkariak duen pertsonarentzat onurarik” hitzen ordezkari “ordezkariak duen pertsonarentzat onura klinikorik” hitzak erabiltzea proposatzen dugu. Honela geratuko da testua: “ordezkariak duen pertsonarentzat onura klinikorik eta errespeturik handiena bilatzeko moduan”

Zioak: Ordezkariek bilatu behar duen onura-mota zehazten da.

32. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. “Iraguntza emateaz arduratzen den sendagilearen iritziz pertsona bat” hitzen ordeztuz, “20. artikuluan ezarritakoaren arabera pertsona bat” hitzak erabiliko dira. Honela geratuko da testua:

“1. “Aurreko 6. eta 7. artikuluen..., 20. artikuluan ezarritakoaren arabera pertsona bat, izatez... bai informazioan oinarrituriko baimena ematea... agintari judizialek erabakitzen dutena”

Zioak: Ezgaitasuna berariaz aurreikusitakoaren arabera zehaztu behar da. Ordezkaritzaren hurrenkeran, legezko ordezkariek ezkontidearen aurretik egon behar du.

33. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

11.4 artikulua aldatzeko zuzenketa. “20. artikuluan arabera definitutako” eta “klinikoa” terminoak sartzea proposatzen dugu. Honela geratuko da testua:

“4. 20. artikuluan arabera definitutako ezgaitasun egoeran... haien onura klinikorik handiena... errespetua bilatuko dira. Gaixoaren... lituzkeenak ere”

Zioak: Askoz ere argiago azaltzen da zein den testuaren asmoa.

34. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen dugu aldatzea 12. artikulua, “Erabakiak hartzeko eta informazioan oinarrituriko baimena” duena izenburu. Honela geldituko da: “Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 51. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio”

Zioak: Eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

35. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

12.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. “Legezko ordezkariek, tutoreak, kuradoreak” adierazpidea sartu behar da. Testua honela geratuko da:

1. Adingabeen kasuan... baimena haien legezko ordezkariek, tutoreak, kuradoreak eman beharko du... ezarritakoaren arabera”

Zioak: Aurreko zuzenketarekin bat etortzea.

36. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

13.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Haren ordeztuz honako testu hau jartzea:

“1. Egoera terminalean edo hiltzerian dauden pertsona guztiek eskubidea dute kalitatezko zainketa aringarri integralak jasotzeko”

Zioak: Badirudi lege honen xedea gaitzetea dela bera zabaltzea maite diren pertsonen eta doluaren ondorengo uneei. “Maite diren pertsonak” terminoak ez du inongo esanahi juridikorik.

37. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

14.2. artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Eskubide horretara bildu ahalko da, teorikoki, edozein jatorri eta gradutako sufrimendua daukan pertsona oro.

38. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa. 1. eta 2. puntuen ordeztuz, honako testua jarri beharko da:

“Gaixo terminalek edo hiltzerian daudenek eskubidea dute sedazio aringarria jasotzeko, behar dutenean”

Zioak: Proposameneko testuko 1. eta 2. puntuak eduki bera dute, non eta ez den gertatzen bizitzaren amaierako egoera eta egoera terminala edo hiltzerian egotea gauza desberdinak izatea, azken horiek baitira lege honen xedea. Hobeki egokitzen zaio legearen xedeari.

39. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

15. artikulua aldatzeko zuzenketa.

15.1 artikuluko 1. idatz-zatiaren amaieran ondo-koa gehitzeko zuzenketa:

"betiere profesional batek hala agintzen badu".

Zioak: Definizio hobea da, gure ustez.

40. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

16. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen dugu aldatzea 16. artikulua, "Intimitate pertsonal eta familiarerako eta konfidentzialtasunerako eskubidea" duena izenburu. Honela geldituko da: "Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio".

Zioak: Eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

41. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

17. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen dugu aldatzea 17. artikulua, "Informazio klinikoaren inguruko betebeharrak" duena izenburu. Honela geldituko da: "Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 76.2 eta 76.4 artikuluetan ezarritakoari jarraituko zaio".

Zioak: Profesionalen eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

42. ZUZENKETA**SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposatzen dugu aldatzea 18. artikulua, "Erabaki klinikoak hartzearen inguruko betebeharrak" duena izenburu. Honela geldituko da: "Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 76.3 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio".

Zioak: Profesionalen eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

43. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

18.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Amaierako tartekia kendu nahi dugu; hauxe, hain zuzen ere: "Nolanahi ere, ez dituzte inposatuko beren sinesmen eta konbikzio pertsonal, erlijioso edo filosofikoetan oinarrituriko jarduera-irizpideak".

Zioak: Kontzientzia eragozpenaz baliatu ahal izateko bermea.

44. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

20.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

"2. Irizpide horiek baloratzeko, gaixoei arreta ematen zuzenean inplikaturiko beste profesional batzuen iritzia eskatuko da. Halaber, familiari kontsultatuko zaio, ahal den informaziorik onena edukitzeko. Nolanahi ere, ezgaitasunari buruzko erabakia, sendagilearen balorazioa entzun ondoren, ordezkariak duten pertsonak hartuko dute, 11. artikuluan ordezkariak dela-eta ezarritako hurrenkerearen arabera".

Zioak: Gaixoaren autonomiaren printzipioa eta baimen informatuaren printzipioa direla-eta, kome-ni da gaixoarentzat hainbesteko garrantzia duen egoera hori ez geratzea sendagilearen eskuetan. Sendagile horri egokituko zaio egoera baloratzeko, eta ordezkariari, berriz, ezgaitasun egoerari buruzko amaierako erabakia hartzea.

45. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21.1. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honako testu hau izanen du:

“1. Gaixo bakoitzaren ardura duen sendagileak... praktika kliniko egokiaz baliatuta, biziari eusteko neurriak mugatu beharko ditu setatze terapeutikoa saihesteko beharrezkotzat jotzen duenean. Justifikazio... gaixoaren historia klinikoan jasoko da. Nolanahi ere, aurretiazko borondateen deklarazioa hartuko da aintzat, eta gaixoaren baimena eskatuko da, 7. eta 9. artikuluetan ezarritakoren arabera.”

Zioak: Nolabaiteko kontraesana dago betebeharraren eta testuak sendagileari ematen dion askatasunaren artean, mugatze-neurria hartzea haren estimazio zeharo askearengan uzten baita. Kasua objektibo bihurtu beharra dago egoera klinikotik heldutako aholkuari erreferentzia eginez eta gaixoaren baimena edukitzeko betebeharreakin.

46. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Besteak beste, “osasan arloko beste bi profesional” hitzak kendu nahi dira. Honela geratuko da testua:

“Mugatze horrek eskatuko du, erizainen irizpidea entzunda, gutxienez ere gaixoari osasan arreta ematen parte hartzen ari diren osasan arloko beste bi profesional erabaki berekoak izatea. Profesional horien identitatea eta haien iritzia historia klinikoan jasoko da.”

Zioak: Garrantzitsua da erizainen iritzia. Bestalde, ez da beti erraza izanen bi sendagile profesional eskura edukitzea. Gure ustez nahikoa da gutxienez ere baten iritzia edukitzea.

47. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21.3 artikulua kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez da beharrezkoa, zeren eta argi eza-rrita baitago beti gaixoaren –edo, kasua bada, haren ordezkariaren– borondatea nagusituko dela.

48. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

21. artikulua 4. puntua aldatzeko zuzenketa. Honako testu honekin ordeztea proposatzen da:

“4. Gaixoa artatzen duten osasan arloko profesional guztiek haren zainketa eta erosotasun ego-kiak eta gutxienezko zainketa egoki eta proportzio-natuak bermatzeko behar diren osasan esku-hartze guztiak eskaini beharko dizkiote, baita biziari eusteko neurriak mugatzen diren kasuetan ere, lex artis delakoaren arabera.”

Zioak: Jarduketa medikoetan egokitasun eta proportzionaltasun kontzeptuak aintzat hartzea ezinbestekoa da ahalegin terapeutikoa mugatzeko erabakiak hartzeko eta betebeharrak ezartzeko.

49. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

Artikulu bat, 21. bis, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“21. bis artikulua. Kontzientzia eragozpenaren bermea.

1. Konstituzioak jasotako kontzientzia eragoz-penerako eskubidea foru lege honen garapenean bermatuko da, sinesmen eta konbikzio pertsonal, moral, erlijioso edo filosofikoen kasuak direla eta, osasan arloko profesionalak, lege-testu honetan aipatzen denak, bere burua ikusten duenean bere kontzientziaren edo lex artis delakoaren araberrako jokabidearen aurkako egoeretan.

2. Halaber, kontzientzia eragoz-penerako esku-bidea bermatua daukate lege honen garapenean inplikaturik suertatzen diren gainerako langile ez-sanitarioek.”

Zioak: Konstituzio-zuzenbidean kontzientzia eragozpenaz baliatzeko jasotako eskubidea bermatzen da.

50. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA**

23.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Testuari hurrengo hitzak sartzea proposatzen dugu: “laguntza erlijiosa”, “sinesmenen arabera” hitzen eta “laguntza espiritual” hitzen artean.

Zioak: Espainiako Konstituzioan ezarritako erlijio-askatasunaren printzipioaren arabera.

51. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu berri bat, 23. ter, gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“23. ter artikulua. Gaixoari arreta ematea langile sanitarioen eta gainerako langileen kontzientzia eragozpenaren aurrean.

Aurreko artikulua araberako kontzientzia eragozpenaren kasuan, erakunde sanitarioak, eta kasua bada, Administrazio Sanitarioak, behar diren neurriak ezarri beharko dituzte haren eskakizunari erantzuna emateko”.

Zioak: Gaixoaren eskubideak bermatzea.

52. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

23. quater artikulua berria gehitzea proposatzen da. Hauxe du testua:

“23. quater artikulua. Kontzientzia eragozpenarengatik zehapenik ez gotea.

Foru lege honetan aurreikusitako zehapenetatik kanpo geratuko dira kontzientzia eragozpenari atxikitzen zaizkion eta foru lege honen garapenean inplikaturik dauden profesional sanitarioak eta gainerako langileak”.

Zioak: Kontzientzia eragozpenaz baliatu ahal izateko bermea.

53. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. artikuluko testua aldatzeko zuzenketa:

“Zentro eta erakunde sanitarioek eta sozio-sanitarioek egoera terminalean dauden gaixoei laguntza profesional egokia ziurtatuko diete, zainketa aringarrietan haiei laguntza integrala, banakata eta jarraitua emate aldera, bai gaixoaren etxean, bai osasun zentroan. Horretarako, behar diren tresnak ezarriko dituzte; laguntzaren jarraitutasuna eta bestelako baliabideekiko koordinazioa ziurtatze aldera.

Zioak: Testuak laguntza modu ez-osatuan eta zatikatuan deskribatzen zuen, eta alderdi hori hobetzen saiatu gara. Jarraitutasunaren eta koordinazioaren kontzeptuak sartzen dira.

54. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

24. bis artikulua berria gehitzeko zuzenketa:

“Zainketa aringarrietako laguntzak honakoak hartuko ditu bere baitan: egoera terminalean dauden gaixoen identifikazioa; haien premien balorazio integralak eta zainketetarako plan baten ezarpena; sintoma fisiko eta psikikoen balorazioa eta kontrola, minaren eta gainerako sintomen tratamendu farmakologikoa eta ez farmakologikoa adierazita; gaixoarentzako informazioa eta laguntza, prozesuaren fase desberdinetan eta erabakiak hartzerakoan; eta gaixoarekin zerikusia duten pertsonentzako informazioa, aholku sanitarioa, aholkularitza eta laguntza. Beharrezkoa den egoeretan, eta batez ere kasu zailetan, osasun-laguntzako edo/eta laguntza sozialeko nahiz zerbitzu espezializatuak egituren bitartezko arreta erraztuko da, bai kontsultetan, bai gaixoaren etxean edo gaixoa ospitaleratuz, kasua bada”.

Zioak: Foru legean sartzen da irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuko gaixo terminalentzako arreta aringarriari buruzko atal berezia. Bat dator, halaber, O-NOZen zainketa aringarrietarako estrategiarekin.

55. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25.1. artikulua honako testu honekin aldatzeko zuzenketa: “Zentro eta erakunde sanitarioak” dioen lekuan, “zentro eta erakunde sanitario publikoak” esan behar du.

Zioak: Agindu honen egiturazko osagai eta osagai ekonomiko garrantzitsua kontuan izanda, azpiegitura publikoetan baizik ezin du eragin.

56. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

25.1 artikulua aldatzeko zuzenketa:

“Gaixoaren ahaideei eta zaintzaileei laguntza emozional, ekonomiko eta zerbitzuetakoa ematea”

dioen lekuan, “gaixoaren pertsona zaintzaileei eta familiei babes eta laguntza ematea” esan behar du. Honela geratuko da testua:

“1. Zentro... bizitzaren amaierako prozesuan dagoen gaixoaren pertsona zaintzaileei eta familiei babes eta laguntza ematea, haren laguntza... familiak amore eman dezan ekiditeko”

Zioak: Zentroak ez dira laguntza ekonomikoa ziurtatu behar dutenak. Nolanahi ere, soilik informazioa eman beharko lukete kasuko laguntzak eskatzeko bide eta baldintzei buruz.

57. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27. artikulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen dugu aldatzea 27. artikulua, “Bizitzaren amaierako prozesuan dauden pertsonak banakako gelan egotea” duena izenburu. Honela geldituko da: “Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko 26.6 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio”

Zioak: Eskubide hau dagoeneko araututa dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrak buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legean.

58. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

27.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Amaierako esaldia kentzea proposatzen dugu: “Gelek... bermatuko ditu, behar diren kasuetan”

Zioak: Lege batean ez da egokia.

59. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

28.2. artikulua aldatzeko zuzenketa. “Herritarrek berek” esapidetaren ordeztu “gaixok edo haien ordezkariak” erabiltzea proposatzen dugu.

Zioak: Gaixok dira etika-batzordearen erabakiak pairatzen dituztenak, baina herritarrek ere badi-rela ahaztu gabe.

60. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

III. tituluaren izenburua aldatzeko zuzenketa.

Hauxe da proposatzen dugun izena: “Hiltzeko prozesuan dauden gaixoei laguntza ematen dieten profesionalak”

Zioak: Aukera ematea kontzientzia eragozpe-nerako eskubidea eta hartaz baliatzeko bermea aintzat hartzeko.

61. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

III. tituluari beste artikulua bat gehitzeko zuzenketa.

“III. tituluak.

Gaixoei bizitzaren amaierako prozesuan laguntza ematen dieten osasun-profesionalen betebeharrak eta bermeak.

Artikulua. Lanbide jardunaren bermeak.

Prozesu orotan, behar diren baldintzak ziurtatu-ko dira arretan eta hartu beharreko erabakietan parte hartzen duten profesionalak irizpide mediko-ak aplikatu dituzten independentziaz eta zorrotzasun zientifikoaz, askatasun profesionala eta kalitatezko arreta errespetatuz.

62. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko zuzenketa.

4. xedapen gehigarri berri bat eranstean zaio, honako testuarekin:

“Osasun Departamentuak eta haren erakunde autonomo Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, foru lege honetan zainketa aringarriak emateari buruz ezarritakoa hobeki bete dadin, Zainketa Aringarriak Koordinatzeko Foru Bulegoaren sorrera sustatuko dute. Honakoak izanen dira bulego horren xedeak: laguntzak koordinatzea erkidegoan erabilgarri dauden baliabide guztien artean, maila guztietan zainketa aringarrien arloko prestakuntza bultzatzea, eta foru lurraldean bizitzaren amaierarekin zerikusia duten berariazko alderdiei buruzko ikerketa sustatzea”

Zioak: O-NOZek gaixoen premien arabera ego-
kitu beharra dauka; oraingoan, zainketa aringarrie-
tako premien arabera.

63. ZUZENKETA

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

V. titulua aldatzeko zuzenketa.

Proposatzen dugu aldatzea V. titulua, "Arau-
hauste eta zehapenak" duena izenburu. Honela
geldituko da: "Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeko
zehapen araubideari (V. titulua) jarraituko zaio".

Zioak: Zehapen-araubidea dagoeneko araututa
dago Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren
alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta bete-
beharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru
Legean.

64. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko bigarren lerrokada aldatzeko
zuzenketa.

Esapide hau kentzea proposatzen da: "gaixota-
sunaren sendaezintasuna".

Zioak: Gaixotasun bat sendaezina izateak ez
du nahitaez sortzen bizitzaren amaierako egoera
bat edo, hobeto esateko, heriotza naturaleko pro-
zesu bat. Beraz, foru lege proposamenak duen
xedearen gaineko nahasbidea besterik ez dakar.

65. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa. Testu guztian,
"heriotza duina" esapidearen ordeztu, "heriotza
naturala" jartzea proposatzen da.

Honako hauetan eragiten du: zioen azalpeneko
3., 5. eta 6. lerrokadak.

Zioak: Duintasuna ez da heriotzarena, pertso-
narena baizik.

66. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hirugarren lerrokadako
azken esaldia aldatzeko zuzenketa. Honela geldi-
tuko da:

"Alegia, indikatuak ez diren tratamenduak jaso
beharririk gabe hiltzea".

Zioak: Testua zaila da ulertzen. Badira sendatu
ez baina gaixoaren bizitza hobetzen duten trata-
mentu onuragarriak.

67. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenean, laugarren lerrokadako
lehenbiziko esaldiaren ondotik, beste esaldi hau
gehitzeko zuzenketa: "Bizitzeko eskubidea pertso-
naren funtsezko eskubidea dela aldarrikatzen du
Espainiako Konstituzioko 15. artikulua. Hala dago
jasota, halaber, Giza Eskubideen Deklarazio Uni-
bertsalaren moduko testu garrantzi oso handikoe-
tan. Beraz, pertsonari berari bakarrik edo bere
ordezkariari dagokio, foru lege honetan aurreikusit-
ako kasuetan, heriotzaren amaierako prozesurako
jarraibide zehatzak xedatzea.

Zioak: Espainiako Konstituzioak izan behar du
zioen azalpenean adierazten den bizitza-aldezpe-
neko arau-erreferentziaren buru, nahiz eta horrek
ez duen ezertan galarazten ordenamenduak egin-
bide sanitarioak arautu beharra heriotzaren proze-
suan, gaixoaren autonomian oinarri harturik.

68. ZUZENKETA

CONVERGENCIA DE DEMÓCRATAS DE NAVARRA

FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTUA

Foru lege proposamenaren zioen azalpena
aldatzeko zuzenketa, hain zuzen ere ondokoei
dagokienez:

1. 5. lerrokada aldatzea. Honako testua izanen
du:

"Europako Kontseiluaren Parlamentu-biltzarra-
ren 1418/1999 Gomendioak, Gaixo terminalen eta
hil-hurren daudenen giza eskubideen eta duinta-
sunaren babesari buruzkoak, jasotzen du gaixoen
kalitatezko zianketa aringarri integralak jasotzeko
daukaten eskubidea. Organo horren beraren Zain-

keta aringarriak antolatzeari buruzko 24/2003 Gomendioak, berriz, zainketa aringarriari buruzko esparru koherente bat ezartzeko lege-neurriak hartzeko gomendatzen du.

2. 6. lerrokada kentzea.

12. lerrokada aldatzea. Honako testua izanen du:

Bizitzaren amaierako prozesuko duintasun osoa egiaz ziurtatze aldera, foru lege honek, ataka horretan pertsonari dagozkien eskubideak zehaztu eta garatzeaz gain, pertsonak bizitzaren amaierako prozesuan artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak eta bermeak ezartzen ditu, eta zenbait betebeharrak esleitzen dizkie erakunde publiko nahiz pribatuei, pertsonen –gaixoen nahiz profesionalen– eskubideak ziurtatzea helburu; hartara, historia klinikoan jasota ageriko dira prozesu terminalari buruzko informazioa eta gaixoaren lehenetsunak erabakiak hartzerakoan, eta behar diren baldintzak ziurtatuko dira profesionalak irizpide medikoak aplikatu dituzten independentziaz, zorrotasunez, askatasun profesionalaz eta kalitatezko arretaz.”

4. 17. lerrokada aldatzea, eta “heriotzaren prozesuan” esapidearen ordez “bizitzaren amaierako prozesuan”.

5. 19. lerrokada aldatzea eta “heriotza onaren idealaren eskubideak” esapidearen ordez “gaixo terminalen eta hil-hurren daudenen eskubideak” erabiltzea.

6. 21. lerrokada aldatzea. Honako testua izanen du:

“Hurrengo artikuluetan jardun profesional egokirako eskubideak eta bermeak ezarri nahi dira, pertsonari bizitzaren amaierako prozesuan arreta emateari dagokionez.”

69. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko seigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa.

"Gaur-gaurkoz" kentzea.

Zioak: Ez da lege-testu baten eginkizuna etorkizuneko legedia nolako izan daitekeen iragaritzea.

70. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko seigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Lerrokadaren amaieran, "Zigor Kodean" eta gero, testu hau gehitzea proposatzen da.

"Hitz hori, hala ere, esanahi ugariz eta gehigarririk emozionalerik zaramatu da; era horretan, zehaztugabea bihurtu da, eta foru lege honetan definizio zehatza behar du. Horrela, eutanasia hitzaren esanahia mugatu nahian, gaur egun joera gero eta handiagoa dago eutanasiatzen honako hauek bakarrik hartzeko: a) gaixoen heriotza modu zuzenean eta nahita eragitea, kausa-ondorio erlazio bakar eta arartegabeko baten bidez; b) gaixoak espresuki eskatuta eragitea heriotza, gaixoak eskaera hori denboran zehar behin eta berriz egin badu eta, gaitasuna izan duen garaian, informatuta egin badu eskaera hori; c) sendaezina den gaitasun baten ondoriozko sufrimendu-egoera batean eragiten den heriotza, gaixoak egoera hori onartezina dela jotzen badu eta sufrimendua arintzeko modurik izan ez denean, zainketa aringarrien bidez, esate baterako; eta d) profesional sanitarioek eragindako heriotzak, profesionalok gaixoak ezagutzen dituztenean eta haiekin harreman kliniko esanguratsua dutenean eragindakoak hain zuzen. Foru lege honek ez du eutanasiaren araubiderik jasotzen".

Zioak: Zehatzago ezarrita gelditzen da zer hartu behar den eutanasiatzen.

71. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 11. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testua, "eta ezgaitasun kasuetan bakarrik" gehituta, honela geldituko da:

"...bai eta ordezkari horrek, unea iritsiz gero, eta ezgaitasun kasuetan bakarrik, kontuan izan ahal dituen interpretazio-irizpideak ere...".

Zioak: Argi eta garbi uzten du, kontuan hartuta baimen informatuaren printzipioa eta gaixoaren autonomiaren printzipioa, interpreta daitekeen bakarra bere borondatea dela.

72. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 12. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Testuari gehitu "ezertan galarazi gabe Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arlokoak nahiz osasun arlokoak ez diren langileek kontzientzia eragozpenerako duten eskubidea", eta honela geldituko da:

"...eta zenbait betebeharrak ezartzen dizkie erakunde publiko nahiz pribatuei, pertsonen eskubideak ziurtatzea helburu, ezertan galarazi gabe Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arlokoak nahiz osasun arlokoak ez diren langileek kontzientzia eragozpenerako duten eskubidea..."

Zioak: Hainbesteko garrantzi ideologikoko gaietan, kontzientzia eragozpenak babestuta gelditu behar du.

73. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 12. lerrokada aldatzeko zuzenketa; hain zuzen ere, testuaren amaieran honakoa gehitzea: "hori guztia, ezertan galarazi gabe kontzientzia eragozpenerako eskubidea erabiltzeko aukera."

Zioak: Argitzen du sanitarioen betebeharrak ezin dutela galarazi horiek duten kontzientzia eragozpenerako eskubidea, hala ezartzen baitu Espainiako Konstituzioko 16.1 artikulua.

74. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 17. lerrokada kentzeko zuzenketa.

Zioak: Ez du inongo zentzurik eta ez dio inongo ekarpenik egiten foru legeari.

75. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko hemeretzigarren lerrokada aldatzeko zuzenketa. Amaieran, "ez eta hura kontuan hartu gabe erabakiak hartu ere" jarri beharrean, beste hau jartzea: "ez eta haren baimenik gabe erabakiak hartu ere."

Zioak: Zehaztu egiten da zein den "kontuan hartu" horren esanahia; baimen informatuaren printzipioaren argitan zehaztu ere, horretan inpsituzen baita lege proposamena.

76. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO**
PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 20. lerrokada aldatzeko zuzenketa; hain zuzen ere, testuaren amaieran honakoa gehitzea: "kontzientzia eragozpena ezertan galarazi gabe."

Zioak: Argitzen du sanitarioen betebeharrak ezin dutela galarazi horiek duten kontzientzia eragozpenerako eskubidea, hala ezartzen baitu Espainiako Konstituzioko 16.1 artikulua.

Foru Lege proposamena, Nekazaritza Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea aldatzekoa.

AKATS ZUZENKETA

2011ko otsailaren 17ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialeko aurkibidean, gaztelaniazko bertsioan, agertu behar ez zuen hauxe sartu da, akats bat dela-eta:

“– Proposición de Ley Foral por la que se modifica la Ley Foral 1/2002, de 7 de marzo, de

Infraestructuras Agrícolas. Enmiendas presentadas (Pág. 14).”

Iruñean, 2011ko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzekoa.

Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko euskara itzultzaile izateko lanpostu huts bat lekualdatze-lehiaketa bidez betetzeko deialdira eskaerak aurkezteko epea bukatu da. Deialdi hau 2011ko urtarrilaren 21eko 14. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta 2011ko urtarrilaren 10eko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

ERABAKI DA:

Lehena. Lekualdatze-lehiaketa horretan onartu eta baztertu diren izangaien behin betiko zerrenda onestea, deialdiko 4. oinarriak ezarritakoarekin bat. Horra:

ONARTUAK:

Irazustabarrena Barriola, Ainhoa

BAZTERTUAK:

Inor ez.

Bigarrena. Erabaki hau argitaratzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko iragarki-oholean eta www.parlamento-navarra.es web orrian.

Iruñean, 2011ko otsailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda